

## Txokolatea lodi

TXILLARDEGI



**GAUZAK** garbi, eta ...  
Nik, ergel honek, zalantzak nituen atzo arte. Orain, berri, eta gure lehenengo agintari txit gorenari esker, dena garbi.

«Hemen dagoen bortizkeria bakarra, ETArena da». Betidanik izan dut nik halako mesfidantza botarekiko... eta halako ongina erikorra espartinarekiko. «Más vale la dictadura de la bota, que la dictadura de la alpargata» esan ohi dute fatxek ahobatez. Eta ni, neure kabuz, espartinarena ulertzeko prestago bestea baino.

Baina atzokoaren ondoren, kitto zalantzak. Bilboko kalera irten; eta, gordeka, gazte pare bat topatzen badut, xixpa eskuetan dardar, bata Errigoitiko eta bestea Orozkokoa, euskal burujabtzaren aldeko ekintzaren bat egitekotan; eta, gainera, uniformerik gabe baldin badoaz, garbi dago: 'terroristak' ditut begi aurrean. «Un par de iluminados violentos». Bilboko kale berera irten, aldiz, eta harro-harro beste bi gizaseme topatzen baditut, bata Valdeironco-koa eta bestea Cepedilla de Comeja-koa, nork bere cetme diztirantea eskuetan; eta, garrantzitsue-na, uniforme homologatu bana jazien badute, garbi dago: bi 'demokrata' ditut begien aurrean. «Un par de celadores pacíficos del orden constitucional vigente». Jakina: 'ordenu' honen barruan Hego-Euskal-Herria bi partetan banatuta dago, euskara hiltzera kondenaturik, eta heterodeterminazioaren bidez konponduta da gure nazio-arazoa. Baina honek ez du inportik. Zaharra naizelako, segurki, 'violencia institucional' eta gainerakoak datozkit burura trumilka... Baina «so ya no se lleva», esaten didate gaurko progreek. Eta isildu egingo naiz.

## ● EL MUNDO

## Duintasunarekin hiltzeko eskubidea

Ez da Medikuntzaren egitekoa gaixoak hil arte hilabetetan inkontzientzian edukitzea, gorpu bihurtzea bizirik geratzen zaien denboran eta gaixotasun sendaezinak dituzten pertsonen sufrimendua luzatzea. Noski, oraingo erregulazio penalean oso kontutan hartu beharrekoa da gaixoaren adostasuna, eta bere nahia errespetatu egin behar da beti, alegia, medikuek bere biziraupenerako ahalegin guztiak egitea edo bakean hiltzen uztea.

EDITORIALA

## ● EL CORREO ESPAÑOL

## Lehendakariaren pasibotasuna

Paktua sinatu zuten indar politikoaren artean egun nagusi den nahas-keta ikusita, honako gai garrantzitsu eta oinarritzekoan, alegia, horren interpretazio egokia, lortu nahi dituen helburuak eta horretarako baliabideak, zalantzarik gabe baieztu liteke lehendakaria dela kaos horren lehen arduraduna eta azken hilabeteotan ez duela ia ezer egin hori gainditzeko.

(...)

Batek benetan uste du deialdiaren atzerapena elkarren artean oso desberdinak diren bi arrazoi hauen ondorio dela: alde batetik, Ardanza beldur da EAK eta arrazoi guztiarekin autobidearen auzian kontuak hartu diezaizkiokelako eta, bestetik, agian inork ez dakielako —Ardanza buru dela— zer egin behar den emendik aurrera paktuarekin.

CAYETANO GONZALEZ

## ● ARGIA

## Europako estatu gabeko nazioen subirotasuna

Gaur egun, 166 dira ONUren partaide diren nazio Estatuak. Denera, ordea, badira munduan 1.800 bat etnia ezberdinetako nazioak. Hauetarik, 1.600 bat dira nolabaiteko borrokan jardun dutenak euren naziotasuna eta herri eskubideak errekonozituak izan daitezten. Mugimendu guzti hauek, gainera, badute zerbait amankomuna bere eskaeretan: autodeterminazioa eta burujabetza, eskaera demokratikoak, hain zuzen.

(...)

Izan ere, gaurko erakundeetan burujabe izatea Estatuak dagokie, hau da, indarra dutenei —Estatua indarrean tinkatzen bait da—.

MIKEL URCOLA



SERGUEI/LE MONDE



## Muqdisho: gosea eta odolaren hiriburua

Atzo Liberia, gaur Somalia eta bihar agian Zaire handia: ustez «suzidio nazionalera» kondenatuta dagoen Afrika honetan, ba al dago gerra hotza ez den beste biderik? Baldin

balego, aluzinantea izango litzateke. Muqdishonen, Antzoki Nazionalatik hurbil, alde guztiak gizon armatuek bizitzeko egunero beharrezkoa duten droga dosia aurkitu dute eta horrela indarkeriarekin jarraituko dute. Hor dago Khatta bertako droga aluzinagarria, baita kokaina, «crack» delakoa eta heroina ere. Horiek egunero eskuratzen dituzte, Muqdishoko gerra buruzagiek ez bait dute orain arte hutsik egin antolakuntzan.

STEPHEN SMITH

## Kazeta eta kazetari

PIARRRES XARRITTON



**EGUNKARI** hau sortu zelarik, orai duela laster urtea, norbaitek erran omen zuen, «bigarren egunkaria» izanen zela betiere gure kazeta euskara.

Orduan aurreritzi gaiztotzat hartu nuen solasa. Ez nuen sinetsi. Objektiboa eta zabala izanen zela, ez alderdikaria, kazeta berria, hitzeman baitzuten egunkari berriaren sortzailek.

Urtearen buruan, erran nezake, EGUNKARIA bere inguruko egunkari asko baino idekiago agertu dela; ez beste zenbait bezain hertsia eta hetsia. Ez baitu horrek erran nahi ez dudala amorru bizirik senditu zenbaki bat edo besteren gatik. Hala nola, urriaren 29ko zenbakiak ez digu hitzik atera, Donostian bildu ginen 7-8.000 EAKo kideez, bainan egun berean, Makean, elgarretaratu ziren EMAko adiskideentzat bada nasai leku. EAri uzten zaion tokia 'Autobidearen A-2, zoriareko trazaketaz' ariko da.

Lehentxeago, urriaren 25eko zenbakiak luzaz aipatzen zigun, Baionan *Euskariak* antolatua zuen bilkura xumea, bainan ixiltzen zuten hor erran zen gauzarik arraroena eta interesgarriena: Ukraniarrek eta Lituaniarrek Baionan ez omen baituzten bakarrik erran, «Herri tipien ordua badatorrela», bainan adierazi zuten ere, argi eta garbi: 1. Borroka hartua baztertzeko hitzartuak zirela; 2. Sozialismoak erraztasunak emaiten zizkiola estadoari herria zapaltzeko ikasia zutela; 3. Euskal Herriko alderdi abertzalek zer iluso ikaragarriak hazten zituzten oraino herritarren artean ikusi-ta harrituak zeudela.

Berri hauen jakiteko ordea, nik hastezko, irakurri behar izan dut, A.M.B., 'Sud-Ouest' erdal egunkariko berrikeraria. Horra zergatik oraino naizen amorratu. Ez baitezaket onets, 'bigarren mailako berrikerari' izatea EGUNKARIA.

## ZUZENDARIARI

## GILE-ri gutun irekia

Harriturik irakurri genuen Adarrari eginiko zenbait kritika Egin eta EGUNKARIA bidali zenuten zuen eskutitzean. Eskutitzaren sakonera sartu nahirik, publikoki argitu beharreko deritzogun zenbait puntu ikusten dugu. Aurtengo Ihardunaldietan euskarak nahiko presentziarik ez duela izan onartzen dugu; hala ere, present izan dela adierazi beharra dago: programaturiko bost ikastaroetarik bat Haur-Hezkuntzako euskararen irakaskuntzari buruzkoa izan zen, eta noski, euskaraz emana izan zen, beste bat, praktikoagoa, hizkuntza bitan, partaideak hizkuntza gaitasunaren arabera batzordetan banatuz.

Mingarriena Adarraren aurka darabilzuen erasoa da honelaxe uler daiteke ezta? euskararen alde irakaskuntzan sekula ezer ere egin ez bailuen, eta eginiko apurra zuei esker baizik ez bailitzan. Bietarik bat: edo oroimenak huts egiten dizue eta lardaskatu edo oraindik ulertzen ez dugun halako intentzione ezkuta duke zue.

Adarrak, 1977tik Euskal Herriko Ihardunaldi Pedagogikoak antolatu ditu, beraie-

tan eskola-mailako problema-multzo linguistiko orok leku gailendua izanik. Gure eskaintzaz, 1985etik, elkarrekin antolatu ditugu Euskal Herriko Ihardunaldi Pedagogikoak. Ahaleginak batzean, zeren antolatu behar ziren ekintzen eremua zabala baitzen, zereginak banatzen genituen gure artean, ez, aldiz, xedeak eta interesak, bionak berdinak baitziren. Zuen aurretik GILEn ihardun zutenek arazo linguistikoei buruzko ikastaroen antolamendua, eremua hobeto zezagutenez gero, beren gain hartzea hobetsi zuten. GILEn sartu zintenean, funtzio-banaketa berarekin iraun genuen, lan oro gure eskuetan utzi zenuten arte. Gogora ezazue, arren, azken urteotan geuk prestatuturikoari zuen onespena ematera mugatu zenutela zeuen iharduera. Jakina, euskarari buruzko ekintzak eta halaxe jarraitu dugu 1989tik aurrera. Ihardunaldi Pedagogikoak antolatzeari utzi zenioten urtetik, alegia.

Eskutitzean, Adarrarekin lan egiteari gai linguistikoetan bakarrik lan egiteak zerkarkizuen ahaleginagatik utzi zeniotela diozue. Inoiz ere ez zeniguten horrelakorik esan. Oroit ezazue urte hartan *Bateginik* zeritzan ekitaldia egin zela eta Adarrak kalera atera

ez zuen jarrera kritikoa hartu zuela: ekitaldiari, zeren euskara bultzatu nahi baitzuen, errespetoz behatu genion, bainan nahasbidea eragiten zuten beste helburu batzuekin nahasten zela kausa, ez genuen bultzatzea onuragarria ikusi. Jarrera honek ilundu zituen gure harremanak. Izan ere, Ihardunaldiak antolatzeo garaia heldu zenean, lanean elkarrekin jarraitzeko deialdi egin genituen, bai eta zuen erantzunaren zain luzaro izan ere, bainan, azkenez, zuen ezetza hel erazi zenigutenean, ez zenuen arrazoiak agertu nahi izan.

Nahi genuke gutun hau idatzi beharrik ez balego. Elkar hurbiltzen gintuzten puntu asko zegoela uste genuen, halako moldez non, nor bere ezaugarriekin, edozein unetan berriro ere elkar-lanean iharduteko zioak kausitzea itxaroten baikenuen. Zuen eskutitzea dela eta, duzuen intenzioa ez dela hori susmatzen dugu. Eskubide osoa duzue. Baina, elkarrekin eginiko lana alde batera utzirik, Euskal Eskola Publikoaren amets egiten genuen irakasleen artean ereiniko adiskidetasuna ez likisteko erregutzen dizuegu.

ADARRA

Bilbo

## PERTSONAIA



## 'Basarri'

Errezilen jaiota  
Zarautzen hazia  
hogeigarren mendeko  
ale berezia  
euskara da beraren  
bizio guzia  
hitz, bertso ta idatziz  
duen trebezia  
sari on bat zedukan  
ongi merezia.

IMANOL LAZKANO

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:  
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Lehendakaria:  
JOAN MARI TORREALDAIKontseilari Ordezkarria:  
JOXE MIEL ZUMALABEGerentea:  
INMA GOMILAZuzendaria:  
PELO ZUBIRIAZuzendariordeak:  
NEREA AZURMENDI  
LUZIEA ETXEZAHARRETA  
INAKI URIAPublizitatea:  
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90

## HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75-11